

Software askea eta software jabeduna

TEKNOLOGIA berriek arras aldatu dute gure lan ingurunea, eta gaur egun ezin da ulertu enpresa baten, edozeinen, lanik ordenagailuak, softwarea, internet eta horrelakoak aipatu gabe.

Gure enpresa jardueraren mesederako diren teknologia horiek berriek ere, orde, erronka berriak ekartzen dizkigute, gure ezagutzak egunero berritzera behartzen gaituzte, teknologia eredu bat ala bestea aukeratu eta hala gure erakundeak sendotzeko lagungarri izan daitezzen.


Testuinguru honetan kokatu behar da, hain zuzen, gaur egun dauden software ereduak sortu den eztabaida. Zenbait sektorek zalantzak ditu gaur egun merkatuan dauden sistemak, Windows esate baterako, egokiak diren ala ez, eta eredu berriak proposatzen ditu, software askea deitzen zaienak, Linux eta gisako ekimenetan gauzatzen direnak.

Eztabaida horretan parte hartu edo gai honi buruz gogoeta egin ahal izateko, ahalik eta infomaziorik osatuen eta kontrastatuena eduki behar da lehenik eta behin; horregatik antolatu du Bazkondeak jardunaldi tekniko bat datorren urriaren 7rako, "Teknologiako mendekotasuna, software askea eta kode irekizko softwarea" gaiaz.

Jardunaldi horretan gai honetako zenbait adituk parte hartuko dute, eredu batzuen eta besteen ezaugarriak azaldu eta egoeraren ikuspegi orokor bat proposatzeko. Aukera ezin hobea izango da software askeko zenbait enpresetako kide ezagunen eta software jabeduneko enpresetako en ahotik beren iritziak, eta eredu bakoitzak dituen aldeak eta kontrakoak zuzenean entzuteko.

Jardunaldi tekniko honen bitartez enpresei beren jarduerarako eta erabakiak hartzeko behar dituzten ezagutzak eskainiz jarraitu nahi du Gipuzkoako Bazkonde honek. Asmo horretarako, bada, Bazkonde honen iritzian lehentasuna izan behar duten gaietako bat teknologia berriek eta informazioaren teknologiek jokatu behar duten eginkizunarenak izan behar du.

Une honetan, hain zuzen, Gipuzkoako Bazkondea da Merkataritzaren Ganberaren Kontseilu Nagusiaren barruan Teknologia Batzordearen buru, eta batzorde horren helburu nagusietako bat da Ganbaren teknologia berrikuntza bultzatzea eta tresna berri horiek enpresen kudeaketa rako lagungarri bezala sartzen laguntzea.



Software libre y software propietario

LAS nuevas tecnologías han revolucionado todo nuestro entorno de trabajo y ya no se puede entender la actividad de ninguna empresa sin hablar de ordenadores, software, internet, etc.

Pero estas mismas tecnologías que favorecen la actividad empresarial nos sitúan ante nuevos retos, nos obligan a una actualización constante de nuestros conocimientos para poder optar por unos u otros modelos tecnológicos y favorecer así la consolidación de nuestras organizaciones.

En este contexto, se enmarca el debate suscitado alrededor de los modelos de software que existen. Desde algunos sectores se cuestionan los sistemas vigentes hoy en el mercado, como puede ser Windows, y se proponen nuevos modelos, denominados software libre, que se materializan a través de iniciativas como Linux.

Para participar en este debate o reflexionar sobre el mismo la primera necesidad que se nos plantea es la de disponer de una información completa y contrastada, de ahí que la Cámara haya organizado para el próximo 7 de octubre una jornada técnica, bajo la denominación de "Dependencia tecnológica, software libre y software de código abierto".

A esta jornada acudirán especialistas en la materia que ilustrarán las características de unos modelos y otros dando una perspectiva global de la situación. Podremos escuchar de primera mano a destacados miembros de empresas de software libre, como a los de empresas de software propietario para que expongan sus distintos puntos de vista, sus ventajas y desventajas.

A través de esta jornada técnica, la Cámara de Gipuzkoa sigue prestando servicios útiles a las empresas para que dispongan de los elementos necesarios que favorezcan su actividad y los procesos de toma de decisiones. En este contexto, entre los retos prioritarios identificados por la Cámara se encuentra el papel de las nuevas tecnologías y tecnologías de la información.

En la actualidad la Cámara de Gipuzkoa preside la Comisión de Tecnologías de la

Información del Consejo Superior de Cámaras de Comercio, comisión que tiene como principales misiones impulsar la modernización tecnológica de las Cámaras y actuar como coadyuvantes del proceso de incorporación de estas nuevas herramientas en la gestión de las empresas.